


Dendetan 'mogimendua' eta udalean 'saltsa' Santiago egunean

Hamabi dendek ireki zituzten ateak, eta jende dezente ibili zen gainera. Udalean ere gehienek lan egin zuten, PNV eta EAren errekurtsioak lan egun ez izatea lortu bazuen ere..



Kirolak ez zuen jairik egin Hernanin. Izerditu nahi zuenak aukera izan zuen Kiroldegian.

SANTIAGO Pilar eta Konstituzio egunean lan egiteko erabakiak harrotu ditu bazterrak.

PNV eta EAK jarritako errekurtsioa medio, astelehenean Udaletxera fax urgente bat iritsi zen *administrazioa uzi gaitegarako epaitegitik*. "Egutegi berria momentuz bertan behera uzteko" eskatzen zen, hau da, Santiago eguna jai egun izatea.

GEHIENEK LAN

Legez jai egun bezala hartu bazen ere, zerbitzu gehienetan lan egin zuten, eta udalak haserako akordioa beteko duela berretsi du: "lan egin dutenek ordezkoko jai egunak izango dituzte eta Pilarika eta Konstituzio egunetan ere berdin jokatu dugu" esan digu Ibai Aristimuño zinegotziak.

12 DENDA IREKITA

Merkataritzan ere izan zen asteartean ireki zuenik. Guztira 12 denda egon ziren zabalik eta bezero dezente izan omen zuten gainera, gehienak arratsaldean. Ikusten denez jai egin zutenek maindirepean pasa zuten "Santiyo" goiza.

AURRERA BEGIRA

Zenbait dendarik (oraingo hamabiei batzuk gehituko omen zaizkie), Pilarika eta Konstituzio egunean ere lan egiteko asmoa dute.

Aurrera begira, "Euskal izaerako jai egunak" izendatu nahi dituzte egutegian ordezkoko jartzeko. □



Maite Maidagan
Dendaria


"Asteartean bezero dexente etorri zitzaigun eta ondo lan egin genuen".

"Orain presaka ibili gara, baina Pilarika eta Konstituzio egunetan jende gehiagok ireki nahi du".

■ ERREMONTA

Jokin Etxabe: "**Ezkurra da faborito nagusia, baina noizbait galdu beharko du**"

"Bingo Londres" torneoan jokatu du buruz-buru Elizalderen aurka; gaur 17:00etan Galarretan.



Partidu bezperan dotorre harrapatu dugu plaierako itxuran. Baina lasai, gaur errespeto haundixeagoan aterako omen da.

JOKIN Etxabe orain 27 urte jaio zen Azkoitian eta horietatik 15 daramazki Hernanin. Beraz, "erdia baino gehiago hernaniarra"; berak esanda bezala. Galarretako "kantxeroaren" semea izaki, ez du pelotari irtetzea beste erremediorik izan.

Orain bederatzi urte pasa zen profesioaletara eta baita bi-bitara bi txapela jantzi ere. Azken txapelketan Txapeldun orde geratu da Altuna IIarekin.

■ Zer esperantza dituzu aurtengo buruz burukorako?

Buruz burukoan nerbioak dira etsaierik txarrena, horiek gainditu eta partidu bat irabaziz gero gustora geldituko nintzateke.

■ Zeure buruaz gain -bada ezpada esan- zein duzu faborito?

Faborito nagusia "Koteto" Ezkurra da, baina finalak partidu bakarrera izanda, noizbait galdu beharko du.

■ Jokalari profesional bat bizi al liteke erremontetik?

Eskuzko pelotarien soldatarik gabe baina goi mailan gabiltzanok bizi gindezke, bai. Maila bajuagoetan dabiltzanak ziur asko ez.

■ Erremontean hernaniar askorik ez da, ezta?

Harritzekoa bada ere ez. Galarretan Azpeiti aldeko jendea dabil gehien. □



Galarreta gaina z/g - HERNANI

Gaur arratsaldeko 16:00etatik aurrera erremonte jaialdia:

- ⇒ 1. partidua BEREZIARTUA-BADIOLA / ZEBERIO III-URKO
- ⇒ 2. partidua "BINGO LONDRES" SARIA: ELIZALDE / ETXABE
- ⇒ 3. partidua EZKURRA-URRETABIZKAIA / ZEBERIO II-EIZAGIRRE
- ⇒ 4. partidua BITORIA-ETXEBERRIA III / KALONGE-ZANDIO

Bertako produktuak arkupeetako azokan

Garain batean udaletxepeko arkupea saltzailez lepo egoten zen. Gaur bi edo hiru geratzen dira, eta martxa polita daramakite.



Argazkia: J.M. Irazu

Lurretik mahaira zuzen zuzenean. Gusto duenak badaki.

ASTELEHENETIK larunbatera, azoka txikia izaten da udaletxe azpiko arkupeetan. Goizean goiz hasi eta 11:00ak arte barazki, fruta, lore, arraultza eta gainerako ibiltzen dira salerosian.

NORK BERE ETXEKO PRODUKTUAK

Garai bateko pila hartatik, bi postu gelditzen dira. *Moko* eta *Usategieta* baserrietakoek euren baratza eta negutegietan egindako produktuak saltzen dituzte. Jendearen harrera, "ona", baina ez lanik egin gabe! Hainbat jenero ezberdin ekarri beharrak egunak dituen ordu gehienak hauek zaintzen pasatzea eskatzen du.



Ainhoa Lazkano
Usategieta baserrikoa

"Jendeak kalitateari begiratzen dio. Bertako produktuek badute eskaria".



Maria Isabel Setien
Moko baserrikoa

"50 urte daramazkigu hemen eta gehienek utzi egin dute. Baserrian orduari begiratu gabe egin behar da lana".



**Bota aurretik
erortzen ez
bada...**

'Gure txokoa' etxea bota egingo dute

IZPIZUA kalea eta Kale Nagusia elkar-tzen dituen pasabide horretantxe dago *Gure Txokoa*. 1991ean udalak "ruinan" zegoela deklaratu eta Zabaleta Arbide nagusiari botatzeko eskatu zion. Epe guztiak pasa eta bota ez duenean, udalak berak botatzea erabaki du.

ONDOKO FAMILIA KEZKATUTA

Aldameneko etxean hiru laguneko familia bizi da, joan deneko 15 urtetan. Alberditarra eta biak elkarri erantsita bezala daude eta bat botatzean bestearekin gerta litekeenaren beldur dira. Aurrekontua eta dena zehaztuta badaude ere, oraindik erabakitzeke dago noiz bota. □

HITZ BITAN



Horrelako harrobiarekin izango da herrian musikorik gero ere.

✓ MUSIKA

Iñaki Salvadorrek "Canciones" izeneko lan berria argitaratu du. Diska berri honetan euskal kantu tradizionalak aurkitu daitezke, jazz estilora moldatuta. "Satchmo Jazz" diskearen eskutik kaleratu du.

✓ ARRAUNA

Hernani bederatzigarren herenegun Pasai Donibanen. Lana 21 minutuz azpitik bete zuten arren, "Elorrabi 78"koek ezin izan zuten, lehenengo postuetan sailkatu. "B" ligako laugarren estropada honetan Irungo Santiagotarrak izan ziren garaile. □

✓ KAFE TERTULIA

Prensa ohar baten bidez Udalak gaur arratsaldeko 16:30etan Udaletxeako Areto nagusian izango den kafe tertuliarako deia zabaldu nahi du. "Aurrekontu parte hartzailea" du izenburua eta herriak udaleko aurrekontuetan nola parte har dezakeen esplikatuko da. Mitxel Azketa hitzlariak Limako esperientzia azalduko du.

A G E N D A	❖ ERAKUSKETA	INGURUAN
	<i>Lore lehorrak.</i> Hernaniko Anparorenak Txema tabernan.	<u>Lasarten</u>
	❖ ZINEMA	❖ ERAKUSKETA
	⇒ BARRIO Zuzendaria: Fernando Leon de Aranoa 21:00etan. Triku tabernan.	<i>Txintxarri</i> aldizkariako ale zaharren erakusketa.

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943464622
943 335533
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750

✚ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: **Sagastiberri**
Urbietan, 7
☎ 943552941
- ▶ Gaez: **Diaz**
Andoain, Nagusia 19
☎ 943592057

Zure publizitatea hemen

HERNANIKO
kronika
☎ 943 330899